

«Menditarrak» gaiari
buruzko sariketaren
lehen saria, euskaraz.

Berberiarrak... bizirik dirauen iragana

ARANTZA URBIETA

ESKEINTZA:

Joneri, Itsasori eta
Patxiri...
eta noski, Hassani.

Udazkenaren atarian pausaturik,
monotoniaren katibu,
plazako idoi zikin batean jolasten zebiltzan umeen orroek,
lozorroturiko oroitzapenak aieratu zizkidaten...

(«Xaxi»)



**Berberiar
agurea. Herri
txiro honetan
agureenganako
errespetua aski
nabarmena da.**

**Chechaouenen.
Hassan eta bere
anaiak.**

MARROKO etnia desberdinen
kokagunea du: batipat arabetarrei,
juduei eta europarrei dagokie
kanpotarren taldea. Bertakoak aldiz, etorkin
hauen eraginez, Atlas-eko mendikateetan babestu
dira, arrazak xahu, kutsaturik gabe iraun dezan.

Aitzitik, arabetarrek Medina izenez bataiatutako
aizuneetan pilatuz joan dira, «alderdi zahar»
hauetan kokatzen delarik egungo merkatua eta
kirol nazionala: tratua, hots, regateoa. Juduek ere
Mellah izeneko auzoak eraiki dituzte.

VII. mendetik aurrera arabetarrek bat
islamismoa finkatuko da eta egun, judutarrek ezik,
orok praktikatzen du, honela herriak mezkitez
josirik aurki daitezke. Halere, aintzindar erritu
tribalek oraindik garrantzi handiko zeregina
betetzen dute gelditzen diren hirurehun bat
berberiar leinuetan.

Nahiz eta biztanlegoaren %50-ak hizkuntz
berberieraren dialektoren bat eleztatu, hizkuntz
ofiziala arabea da. Bestalde, arabetarrek emakume
bat baino gehiago emaztetzat eduki arren,
berberiarrek monogamiari eutsi zattaie, hots, bere
ohitura eta sustraiei...





Chechaouenen. Emakumeen argazki bat atera nahi arren, oztopoak ipini zizkiguten. Berberiar neska gazte hau ustekabeen harrapatu genuen.

Bide bazterreko idoi zikin batean jolasten zebilen mutila ez zen gure presentziaz jabetu. Egun osoa izerdi patxetan igaro ondoren Chechaouen-era, Erif mendikatearen aterpean jaiotzen den herrira iritsi ginen. Nekazariaren soroan lanarjak lapurtuz lanpeturiko haurra gutaz ohartzean, prakak lurrera erortzen zitzaizkiolarik, lasterka... oihuka inguratu zitzaigun... **San Sebastián!!!... yo conocer País Vasco!!!... vasco ser amigo!!!...**

Baina bide bazterreko mutilak laster isil erazi eta bere lanera igorri zuen. Bera aldiz, jaramonik egin gabe, bidean barna galdu zen... ez denbora luzerako, izan ere, herrira heltzean hotelaren parean aurkitu genuen, gu noiz azalduko zai.

Hassan zuen izena. Hamabi urte. Chechaouen-en egon ginen egunetan gure sherpa izendatu genuen begi beltzadun berberiar hura.

Azkarra zen, hainbat hizkuntzen jakitun. Halere, eskolan oinarrizko gaiak erakusten omen zizkioten: erlijioa, arabea, kalkulua eta frantsesa. Hauek gaingitu ezkereto preseto zegoen kaleko bizitzarako, regateorako. Baina etorkizuna egurgintzan zekusan, ondo ordainduriko lana zenez. Bitartean, «giriari» gidari bezala ziharduen eta honela hiru zatitan banaturiko herria erakutsi zingun, hainbat azalpenekin bat:

Goikaldean bizi dira berberiarrek, mendiarren magalean. Aurrerakuntzak erakarriko goi mendietako parajeak utzi dituzte eta herrietako eremuetan eraiki beraien etxeak, besteengandik desberdinduriko eraikuntzak, leiho zabalduak bait dira, haizearen fereka, edo eta, eguzkiaren printza sar dadin.

Arraza berezia dugu berberiarra. Herrira jaitsi arren, iraganarekin lokarri bat mantendu nahian, ohitura zaharrei eutsi zatzaie eta honela emakume gehienek aurpegia izara baten bidez estalirik daramate. Neska gazteen kasuan ez da horrelakorik ematen, baina arrotzen aurrean aurpegia eskuz estaliko dute. Are gehiago, berberiar emakumeak tatuai bat darama itsatsirik hala kopetan, nola kokotxan, edo eta oinazpian... bakoitzak bere esanahia daukarik. Esate baterako, eskuak «jenaz» mar-

gotzeak emankortasunaren sinboloa isladatuko luke.

Bestalde, merkatua dute menditik jaisten diren berberiarrekin harremanetan jartzeko gunea. Hauek herrira noizbehinka inguratzen dira ekoizpenak saldu asmoz (fruitua, barazkiak, Nana e.a...), astoa izanik zamari nagusi. Landare oso preziatua dute Nana, tearekin bat alkoholik gabeko «marrokiar whiskya» deritzaien infusioa bait dagite, alegia, infusio honen bidez be-roa erosoago aurre eman dezakete.

Izan badira etorkinengandik aldentuz mendietako muinoetan dihardutenak. Atlas-eko «harresiaren» itzalpean berreraiki dute beren bizitza, mendi hauek arrazaren, herriaren, hots, iraganaren babesle sortatuz.

Aurrera ekiteko iturriak eskaxak ziren, edonola ere, urritasun horretara amoldatu dira. Ogibidea nekazaritza eta artzantza izanik, belarrez hornituriko zelaietan emakumea nekazal eginkizunetan dakusagu, haurra bizkarrean daramalarik, izaren artean galdurik.

Artzantzara emaniko talde nomadak ere

nagusitzen dira. Eguzkiarekin bat, harantz eta honantz dabilta, belartze berrien bila, edo eta gameiluetan basamortuak zeharkatzen dituzte, gauaren isiltasunean murgilduz.

Funtsean, naturarekin etengabea solasaldian dihardute eta maiz haize hotzaren zatzadak nozitu beharrean gertatu dira..., kopeteko zimurretan daramate izkiriaturik bizitzako gorabeherak.

Hassan-en sionak ere aurpegia zimurrez josirik omen zeukan. Miresten zuen. Berari buruz ihardutean, hemen inoiz ikusi ez ditugun begi beltz haiek beltzaranagoak bilakatu ziren. Gartsuki eleztatzen zen urrunean, Atlas-eko dunetan txorien antza zebilen nomadari buruz.

Gure lagunaren esamesekin bat laket galduko ginatete, aitzitik, jakin bagenekien agurra aireratzeko tenorea heldu zela, etxerantz abiatu behar eta... ezin. Herenegun igeriketa saioak eginiko errekan agurtu genuen Hassan, irrifar lauso bat airean dantzan zebilelarik... **¡adiós, bereberes vascos!** -oihukatu zuen.

Agur, iraganaren semea!

Denboraren uhinetan ito ez den iragana... bizirik dirauena.

RESUMEN

GENTES DE LA MONTAÑA

A pesar del influjo de la convivencia con las distintas razas que se mezclan con ellos en el Este de Marruecos, y sobre todo con los árabes y su aportación del fenómeno islámico, los bereberes siguen manteniendo sus características étnicas, entre las que destaca su deporte nacional: el regateo.

Como un exponente de esta gente que el montañero se encuentra al ir al Rif o al Atlas, la autora nos habla de Hassan, el guía de 11 años que les contrató y conquistó en Chechaouen.

Argazkiak: Patxi Iraola.



Fez. Laranja saltzaile hauek bezalaxe, haurrak txikitandik negozio, hots, tratu mundurako hezitua dira.